



Zuzendariak hautatzeko meritulehiaketako EGUTEGIA.

- Agindua EHAAn argitaratzea: Abenduan.

- Eskabideak aurkeztea: 2010eko urtarrilaren 11 eta 22a bitartean, egun biak barne.

Eskaerarekin batera, alegatutako merituen ziurtagiria eta zuzendaritza-proiektua aurkeztu beharko dira.

- Aurkezten diren pertsonen eskakizunak betetzeari buruz Hezkuntzako lurralde-ordezkariek Langileriaren Kudeaketari egindako eskaera: 2010eko urtarrilaren 25a eta 27a bitartean, egun biak barne.

- Eskatutako informazioa prestatuko du Langileriaren Kudeaketak, eta Hezkuntzako lurralde-ordezkariei emango die: Epea 2010eko otsailaren 5ean bukatzen da.

- Eskaerak onartzeko edo ezesteko Hezkuntzako lurralde-ordezkarien behin-behineko ebazpenak: epea 2010eko otsailaren 10ean bukatzen da.

- Behin-behineko ebazpenak argitaratzea: Ebazpen horiek Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako eta dagokion ikastetxeko egoitzako iragarki-taulan argitaratu beharko dira. Epea 2010eko otsailaren 12an bukatzen da.

- Interesdunek erreklamazioa jarri ahal izango diote Hezkuntzako lurralde-ordezkariei eskaerak onartzeko edo ezesteko behin-behineko ebazpenen kontra: epea 2010eko otsailaren 24an bukatzen da.

- Erreklamazioei buruzko erabakiak eta eskaerak onartzeko edo ezesteko Hezkuntzako lurralde-ordezkarien behin betiko ebazpenak: epea 2010eko martxoaren 3an bukatzen da.

- Behin betiko ebazpenak argitaratzea: Ebazpen horiek Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako eta dagokion ikastetxeko egoitzako iragarki-taulan argitaratu beharko dira. Epea 2010eko martxoaren 5ean bukatzen da.

Interesdun pertsonak gorako errekurtsioa jar dezakete aipatutako ebazpenen aurka Hezkuntzako Sailburuordearen aurrean, erabakiak argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

- Ikastetxeren batean hautagaitzarik aurkeztu ez bada edo onartu ez bada, 2010eko martxoaren 8tik aurrera, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostenak egingo ditu zuzendariaren ezohiko izendapena egiteko urtebeterako.



- Aurkezten diren pertsonen merituei buruzko informazioaren eskaera: Hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetan, 2010eko martxoaren 8a eta 10a bitartean, biak barne, kasuan kasuko gaiaren arabera, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde-zerbitzuei hautagaiak lehiaketaren lehen faserako alegatzen dituen meritua zuzen daudela egiaztatzeko eskatuko diete.

- Eskatutako informazioa lantzea: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Lurralde-zerbitzuek, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek eskatutako datuak eman beharko dituzte. Aipatutako datuak emateko epea 2010eko martxoaren 22an amaituko da.

AUKERAKETA BATZORDEA ERATZEA.

- Klaustroko eta OOGen irakasle ez diren kideen bilerak egingo dituzte 2010eko martxoaren 8a eta 11 bitartean, egun biak barne, ordezkariak izendatzeko.

- 2010eko martxoaren 12an, zuzendariak Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari jakinaraziko dio nortzuk aukeratu diren.

- 2010eko martxoaren 18an bukatuko da epea lurraldeko ikuskari nagusiak lurralde-ordezkaritari jakinarazteko nor den batzordeburu izateko proposatzen den ikuskaria.

- 2010eko martxoaren 24an amaituko da epea Hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatu ditzaten aukeraketa-batzordeko kide guztiak.

LEHEN FASEKO MEREZIMENDUEN ETA ZUZENDARITZA-PROIEKTUAREN BALORAZIOA.

- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetako batzorde bakoitzeko lehendakariari emango dizkiote onartutako hautagaien lehiaketaren lehen faseko merezimenduak balioesteari buruzko datuak. Horrez gain, onartutako hautagai bakoitzak aurkeztu duen zuzendaritza-proiektuari buruzko dokumentazioa emango diote. Ikastetxeek hautagaitza bakarra badute, hautagai bakarrak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuari buruzko dokumentazioa baino ez da aurkeztu beharko. Aipatutako datuak eta dokumentazioa emateko epea 2010eko martxoaren 26an amaituko da.

- 2010eko apirilaren 14an amaitzen da epea aukeraketa-batzordeak baloratzeko prozesuko lehen faseko hautagai guztien meritua, hautagai bat baino gehiago duten ikastetxeetan.

- 2010eko apirilaren 14an, aukeraketa-batzordeak bere erabakia argitaratuko du ikastetxe bakoitzaren iragarki-taulan. Ebazpenaz gain, jakitera emango dira hautagai bakoitzak baremoaren atal eta azpi-atal bakoitzean zenbat puntu jaso dituen.



- Interesdunek batzordeari erreklamazioa jartzeko epea: 2010eko apirilaren 15a eta 19a bitartean, egun biak barne.
- Errekurtsoak Aukeraketa-batzordeak aztertuko ditu eta behin betiko ebazpena emango du. Ebazpen horretan, hautagai bakoitzak baremoko atal eta azpiatal guztietan lortutako puntuak azalduko dira: epea 2010eko apirilaren 21ean bukatzen da.
- 2010eko apirilaren 21ean, behin betiko ebazpena argitaratuko da ikastetxeko iragarki-taulan.
- 2010eko maiatzaren 4a arte aukeraketa-batzordeak hautagaien zuzendaritza-proiektu hautatuak baloratuko ditu.

(Aukeraketa Batzordeak hautagaiak elkarrizketatu ahal izango ditu –gutxienez 48 ordu aurretik hitzordua adostuta– zuzendaritza-proiektuan jasotako informazioa osatzeko, eta proiektua ikastetxerako eta eskatutako posturako egokia den aztertzeko).

ZUZENDARI KARGURAKO HAUTATU DEN PERTSONA PROPOSATZEA:

- 2010eko maiatzaren 5ean, Aukeraketa Batzordeak behin-behineko ebazpena argitaratuko du ikastetxearen iragarki-taulan. Ebazpen horretan, jakitera emango dira hautagai bakoitzak baremoaren atal eta azpi-atal bakoitzean eta zuzendaritza-proiektuan zenbat puntu jaso dituen.
- Behin-behineko ebazpen horren kontra, interesdunek Batzordearen beraren aurrean erreklamazioa aurkezteko parada izango dute 2010eko maiatzaren 6a eta 12a bitartean, biak barne.
- Aukeraketa Batzordeak aurkeztu diren erreklamazioak aztertuko ditu eta behin betiko ebazpena onartuko du. Ebazpena emateaz batera, zehaztu egingo da hautagai bakoitzak zenbat puntu jaso dituen baremoaren atal nahiz azpi-atal bakoitzean eta zuzendaritza-proiektuan. Aipatutako Ebazpena onartzeko eta ikastetxeko iragarki-taulan jakitera emateko epea 2010eko maiatzaren 19an amaituko da.
- 2010eko maiatzaren 19an, akta prestatu, argitaratu eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari bidaliko.
- 2010eko maiatzaren 20a eta 26a bitartean (egun biak barne), interesdunek erreklamazioa jarri ahal izango diote Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari aktan jasotako erabakien kontra.
- 2010eko ekainaren 4an amaitzen da epea Hezkuntzako lurralde-ordezkaririk jarritako erreklamazioak ebatzi eta hautagai aukeratuen behin betiko zerrenda argitaratzeko.



Interesdun pertsonenek gorako errekurtoa jar dezakete aipatutako ebazpenen aurka Hezkuntzako Sailburuordearen aurrean, erabakiak argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

HASIERAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren ebazpena, zuzendarien hasierako prestakuntza-programetarako deia egiteko: Epea 2010eko maiatzaren 14an bukatzen da.

Ebazpen horretan hasierako prestakuntza-programaren hainbat alderdi arautuko dira: antolakuntza, egutegia, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.

Ebazpenean, era berean, zehaztu egingo da zein epe dagoen programa egin beharrik ez duten pertsonenek eskatu ahal izan dezaten horretan sartzea eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebazpenak eman ditzan, eskatutako eskabideak onartu edo ukatzeko.

ZUZENDARIAK IZENDATZEA:

- Hasierako prestakuntza-programa gainditu eta hautatu diren edo salbuetsita dauden lagunen behin betiko izendapenak: 2010eko uztailaren 1ean izendatuko dira lau urterako.

- Hautagaitzarik aurkeztu ez den edo aukeraketa-batzordeak inor hautatu ez ikastetxeetan, ez-ohiko izendapenak egingo dira 2010eko uztailaren 1ean.

Ikastetxeren batean, aurreko urtean ere zuzendaria hautatzeko prozesua deitu baina kargua hutsik geratu bazen, izendapen berezi bat egingo da hiru urterako: 2010eko uztailaren 1etik 2013ko ekainaren 30a arte. Gainerako kasu guztietan, izendapena urte beteko aldi berezi baterako egingo da: 2010eko uztailaren 1etik 2011ko ekainaren 30a arte.

- Ez-ohiko izendapenak ikastetxe sortu berrietan: 2010eko uztailaren 1ean eta Hezkuntzako lurralde-ordezkariak egoki irizten duen aldirako; dena den, epe hori ez da hiru urte baino luzeagoa izango.